



# ROKODROMO ARAUAK



A.D. SAN JUAN - DONIBANE K. E.

Rokodromo esparruan sartzeko, karneta atera behar da eta, horrekin, atarian giltza eskuratu.

Bazkide erabiltzaileak ezagutzen eta onartzen du eskalada egiteari datxekion arriskua. Bere gain hartuko du ardura guztia, instalazioan edota materialan gaizki erabiltzeagatik kalteak egiten badu; hala nola bere buruari edo beste pertsona bati egindako kaltea teknika desegokia egiteagatik.

Gurasoak edo laguntzaileak adin txikikoen arduradunak izango dira esparruaren barruan eta gaizki erabiltzea eragotzi beharko dute.

## 1. BOULDER

Zoka gabeko eskalada egitea da. Teknिका hau erabiltzen denean ezin da espres zintek markatzen duten lehenengo marratik pasa.

## 2. SOKAK IPINI

Sokak ipintzeko beti zortziko korapiloa erabiliko da soka arnesarekin lotzeko.

## 3. ASEGURATZEKO GAILUA

Rokodromoan aseguratzeko, bakarrik blokeatzen diren segurtasun gailuak erabili beharko dira. Merkatuan eredu ezberdinak daude, baina gehien erabiltzen dena grigri da eta beti segurtasun mosketoiarekin erabili beharko da .

## **4. SOKAK**

Rokodromoan jarrita dauden sokak erdiestatikoak dira. Ez erabili inoiz lehenengo postuan eskalatzeko; bakarrik poleaz eskalatzeko.

Bukatzean, sokak pasatak utziko dira bi biltze-mosketoietatik eta bitarteko segurutik.

Lehenengoa eskalatzeko dugunean, geure soka erabiliko dugu (hau beti dinamikoa izango da). Halaber, lehenengoa eskalatzeko dugunean bitarteko aseguru guztiak mosketoiekin jarriko dira, baita bi mosketoi bileretik ere.

## **5. ASEGURATZAILEA**

Eskalatzeko ari den pertsonari adi egon behar zaio, baina arreta berezia egin behar zaio lehenengo seguruei, hauetan baitago lurrera erortzeko arrisku gehiago.

## **6. OINETAKOAK**

Erabili beti oinetako egokia: KATU HANKAK.

## **7. MAGNESIOA**

Izerdia arintzeko magnesioa erabili nahi izanez gero, bola itxura duena erabili beharko da; inoiz ez hautsa.

## **8. SEGURTASUN OSOZ ESKALATU**

Maniobra arriskutsua edo desegokia ikusten baduzu JAKINARAZI.

Instalazioaren erabilpen egokia egin, mesedez, garbia mantendu; ez jan eta, jakina, barruan erretzea debekaturik dago.